



NORBANAKAKO CURRÍCULUM EGOKITZAPENEI BURUZKO HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN ARGIBIDEAK

SARRIEN EGITEN DIREN GALDERAK

1.- Zertan desberdintzen dira NCE global bat eta arlo mailako NCE bat? Egokitutako zenbat arlo edo irakasgairekin proposatu behar da NCE global bat?

Noiz planteatu behar den NCE global bat eta noiz arlo mailako bat batzuetan ez dagoela argi ikusi da. Sarritan egoerak eragindako arlo edo irakasgaien kopurua izan da kontuan hartu den erreferentzia.

Arlo edo irakasgaien kopuru konkretu bat baino gehiago, etapa mailako helburu orokorrak lortzeko eta ikasleen oinarrizko gaitasunak garatzeko prozesuei, curriculumari buruzko indarreko dekretuek xedatutakoaren arabera, egoerak nola eragingo dien kontuan hartzea da funtsezkoena.

NCE globalaren proposamenaren kasuan, era esanguratsuan aldatzen dira curriculumaren funtsezko elementuak eta, horregatik, etapa mailako helburu orokorrak eta, beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko aukerei asko eragiten die egoerak. Arlo mailako NECren kasuan, etaparen helburu orokorrak eta gaitasunak garatzeko maila lortzeko aukerek, baita titulua lortzearenekin ere, jarraitzen dute.

Curriculum-egokitzapen esanguratsuaren proposamena Hizkuntza eta Matematika arloetan aldi berean egiten bada, egoera horrek etaparen helburu orokor esanguratsu batzuei eragin ahal diela hartu behar da kontuan eta, horregatik, aukera egokiena NEC globala proposatzea litzateke.

Arau orokor gisa, 3 arlo / irakasgai edo gehiago egokitzeko proposamena, NCE globaleko egoera batek eskatzen duen proposamena izan ohi da. Horregatik Hizkuntzako 3 arlo / irakasgai edo gehiago egokitzeko proposamenari ezetza esaten ohi zaio.

Hala ere, kasu hauetan:

- egokitzekoak hiru hizkuntza arloak edo irakasgaiak direnean (gehienetan entzumen-desgaitasunari lotuak),
- edo Matematika arloa soilik,
- edo garuneko paralisiaren kasuan, afekzio intelektualik ez dagoenean, afekzioa mugimenduarena edo hizkuntzarena delako hainbat arlo/irakasgai egokitu behar direnean

eta ikaslea beste arlo edo irakasgai batzuen curriculum-eskakizunei aurre egiteko gauza bada, pentsatu behar da egokiagoa dela arlo mailako NCE proposatzea

2.- Curriculum-erreferentziako maila konkretu baten helburuak sartzen dituen NCE bat gainditu bada, ba al dago curriculum-erreferentziako maila berbera duen beste NCE bat proposatzeko aukerarik?

NCE gainditzeak, aurrerapenak dakartzan arren, NCEren curriculum-erreferentzia den kurtsoaren /mailaren /etaparen gutxienezko helburuak lortzea ez badakar, **bai**, curriculum-erreferentzia bera



duen beste NCE bat proposatu **ahal da** eta NCE horrek maila horren gainditu gabeko beste helburu batzuk sartuko ditu.

NCE gainditzeak NCE horren curriculum-erreferentzia den kurtsoaren /mailaren /etaparen gutxienezko helburu guztiak lortu direla esan nahi badu, **ezin izango da** kurtso /maila /etapa horretarako beste NCE bat proposatu.

3.- NCE duen ikasle batek ba al du Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko aukerarik?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean eskolatzeko prozesua arlo mailako curriculum-egokitzapen esanguratsuekin egin duen hezkuntza-premia berezietako ikasleak etapa horren helburuak lortu baditu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua emango zaio (1998ko aginduaren 21. artikulua).

4.- Non adierazi behar da DBHko 4.ean eskolatuta dagoen eta NCE duen ikasle batek izango duen edo ez titulua lortzeko aukera?

Ikasle bat irakasgairen batean arlo mailako NCEekin DBHko 4.ean eskolatuta baldin badago, NCE gainditzeak etaparen gutxienezko helburuak eta, beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzea dakarren adierazi beharko da NCE horren irakasgai bakoitzaren ebaluazio-irizpideetan.

5.- Noiz arrazoitu behar da NCEren proposamena?

NCEren proposamen bat tramitatu aurretik, ikasle bakoitzaren premiak baloratu behar dira eta ohiko neurri guztiei eman behar zaie lehentasuna, NCEren proposamena egin aurretik.

Ohiko neurriak, kurtsoa errepikatzea barne, agortu gabe ikasle batentzat lehen aldiz curriculum-egokitzapen esanguratsu bat proposatzen bada, Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietarako aholkulariak arrazoitu beharko du proposamen hori.

NCEak erregulatzen dituen araudian sartzen dira NCE bat tramitatzeko proposamenean kontuan hartu beharreko zirkunstantzia eta irizpideak. Zirkunstantzia eta irizpide horiei zorrotz lotzen ez zaien NCE bat proposatzen den guztietan, behar bezala arrazoitu beharko da eta proposamen hori ikasleari komeni zaiola justifikatzeko argudioak eman beharko dira.

Ez da ahaztu behar NCEren proposamen batek curriculumaren elementu esanguratsuak lortzeari uko egitea dakarrela.

6. Nola deitu behar zaie arloei /irakasgaii NCE batean?

Proposatutako arloen /irakasgaien izenek ikasleak eskolatuta dauden ikasturterako lege ezarritakoekin bat etorri behar dute. Ikasturte horren aktan jasota agertzen diren curriculum-arloak /irakasgaiak direla ikasturtearen bukaeran ebaluatuko direnak hartu behar da kontuan.

Adibideak:

- Ezin zaio arlo bati "Ingurunearen Ezagutza" deitu, ez baitago curriculum ofizialean arlo hori.



- DBHn dagoen ikasle bati ezin zaio Natur Zientzietako NCE bat egin, etapa horren curriculumean ez baitago irakasgai hori.

7.- Kurtsoa errepikatu behar izanez gero, NCE berarekin jarraitu behar al da, edo beste bat tramitatu behar da?

Kurtsoa errepikatuz gero, beste NCE bat tramitatuko da.

8.- Curriculum-maila konkretu bat espediente akademikoan (NCErik gabe) gainditu gisa agertzen bada, banakako curriculum-egokitzapenak planteatu al daitezke curriculum-maila horren arlo eta irakasgaietan? Nola egiazta daiteke gaindituta dagoen edo ez NCE duen ikasle baten espedienteetan?

Ez dira banakako curriculum-egokitzapenak proposatu behar ikasleen espediente akademikoan gainditu gisa (NCErik gabe) agertzen diren arloetan /irakasgaietan.

NCE duen ikasle baten kasuan, ikasle horren espedienteetan jasota agertzen diren eginbideak berrikusiz jakin ahal izango da curriculum-maila gainditu duen edo ez.

Horregatik eginbide horiek ikaslearen dokumentazio akademikoan zorrotz erregistratzearen garrantzia. Behar diren eginbideak jasota agertzen direla berrikusiko da ikasturtearen bukaeran.

9.- Zer dira curriculumera SARTZEKO EGOKITZAPENAK? NCEak bezala kudeatzen al dira? Tramitatzeko prozedura curriculum-egokitzapen garrantzitsuenekin erabiltzen denaren (W67 aplikatzailearen bidez) antzekoa al da?

Irakatsi eta ikasteko prozesuan gertatzen diren aldaketak dira curriculumera sartzeko egokitzapenak. Irakatsi eta ikasteko prozesu hori hobeto gauzatzea eragiten dute eta ematen diete hezkuntza-premia berezi espezifiko iraunkor edo aldi baterakoak dituzten ikasleei ohiko curriculumaren oinarritzko gaitasunak errazago garatzeko aukera. Kasu horretan egiten den mailaren gutxienezko helburuak ez dira aldatzen.

Ondorengo puntuak egokitzea ekartzen dute:

- giza baliabideka eta berorien antolaketa.
- espazio eta elementu fisikoak.
- hornikuntza eta baliabideak.
- irakatsi /ikasteko jarduerak garatu edota ebaluatzeko denbora.

Egokitzapen mota horiek ez dira curriculum-egokitzapen esanguratsuak bezala kudeatzen, ez administrazio-prozedurari, ezta tramitatzeko datei ere begira.

Horregatik, dokumentu honetako erreferentzia diren *NORBANAKAKO CURRICULUM EGOKITZAPENEI BURUZKO HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN ARGIBIDEAK* ezin zaizkie curriculumera sartzeko egokitzapenei aplikatu eta, tramitatzeko, ez da W67 aplikatzailea erabili behar. Dena den, idatziz jasota geratu behar dute ikastetxeetan.

NORBANAKAKO CURRICULUM EGOKITZAPENEI BURUZKO HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN ARGIBIDEAK.

SARRIEN EGITEN DIREN GALDERAK



10.- NCE proposatu ez den baina beste errefortzu-neurri batzuk erabili diren kasuetan, neurri horiek dokumentazio akademikoan (aktak, ikaslearen espedientea, ...) jasota agertuko al dira?

Lehen Hezkuntzan, ikaslearekin beste laguntza-jarduera espezifiko batzuk egin badira, "errefortzua" terminoa, kalifikazioarekin batera, adieraziko da aktetan. Dena den, ikaslea eskolatuta dagoen curriculum-erreferentziako mailari buruzkoa izango da kalifikazioa.

Bigarren Hezkuntzaren kasuan, aniztasunari arreta emateko beste neurri batzuk, hezkuntza-errefortzuak, HBSP edo EOP programak esate baterako, ez dira aktetan agertuko; eginbide gisa sartuko dira espediente akademikoan.

11.- Eginbideen ereduak:

- Ikasle bati **arlo mailako NCE/ NCE globala** proposatzen bazaio eta proposamen hori **hezkuntza-administrazioak onartzen badu**, ikaslearen espedientean, eginbideen atalean, adierazi beharko da.

" 2018ko -----aren -----(-e)an onartzen da -----erreferentzia duen arlo mailako NCE /NCE globala ".

(Curriculum-erreferentzia arlo edo irakasgai guztietarako berbera ez bada, arlo edo irakasgai bakoitzerakoa adieraziko da).

- **Ikasturte bukaerako** NCE baten ebaluazioan bi zirkunstantzia gerta daitezke:

- a) NCE gainditzeak erreferentzia-mailako gutxienezko **helburu guztiak lortu izana** badakar, ondorengo eginbidea erabiliko da:

Lehen Hezkuntzako /Bigarren Hezkuntzako -----mailako erreferentzia duen NCE 2018ko -----aren-----(-e)an gainditu izanak maila horren gutxienezko helburuak lortu direla esan nahi du.

Kasu horretan ez da kurtso horretako curriculum-erreferentziarik duen NCEren beste proposamenik onartuko.

- b) NCE gainditzeak **ez badu gutxienezko helburu guztiak gainditu direnik**, ezta curriculum-erreferentziako mailaren gaitasunak behar bezala garatu direnik ere, **esan nahi**, eta, beraz, beste helburu batzuk lantzen jarraitu behar bada:

Lehen Hezkuntzako /Bigarren Hezkuntzako -----mailako erreferentzia duen NCE 2018ko -----aren-----(-e)an gainditu izanak ez du mailaren gutxienezko helburu guztiak lortu direnik esan nahi.

Kasu horretan, kurtso horretako curriculum-erreferentzia duen NCEren beste proposamen bat egin daiteke.